

**IPARLA BAIGURA KOMUNIKAZIOA  
INTERES KOLEKTIBOKO KOOPERATIBA SOZETATE ANONIMOA  
ZUZENDARITZA BETEARAZLEA ETA ZAINZA KONTSEILUA DUENA  
KAPITAL ALDAKORREKOA  
EGOITZA SOZIALA: 8 MARTINZAHARRENEA OFIZIALE EREMUA  
64122 URRUÑA  
SIREN 494 854 862 - RCS BAIONA**

**ESTATUTUAK**

## **Edukien taula**

1. Artikulua	<i>Forma</i>	5
2. Artikulua	<i>Izendapena</i>	5
3. Artikulua	<i>Iraupena</i>	5
4. Artikulua	<i>Xedea</i>	5
5. Artikulua	<i>Egoitza soziala</i>	6
6. Artikulua	<i>Ekarpenak eta hastapeneko kapital soziala</i>	9
7. Artikulua	<i>Kapitalaren aldakortasuna</i>	9
8. Artikulua	<i>Gutieneko kapitala</i>	9
9. Artikulua	<i>Parte sozialak</i>	7
10. Artikulua	<i>Harpidetza berriak</i>	10
11. Artikulua	<i>Parteen baliogabetzea</i>	10
12. Artikulua	<i>Bazkideak eta kategoriak</i>	11
13. Artikulua	<i>Hautagaitzak</i>	12
14. Artikulua	<i>Bazkideen onarpena</i>	12
15. Artikulua	<i>Bazkide izaeraren galtzea</i>	13
16. Artikulua	<i>Kanporatzea</i>	14
17. Artikulua	<i>Bazkideek eskaturiko diru itzultze partzialak</i>	14
18. Artikulua	<i>Parte sozialen dirua itzultzeko modalitateak</i>	14
19. Artikulua	<i>Bozka kolegioen definizio eta aldaketak</i>	16
20. Artikulua	<i>Zuzendaritza betearazlea</i>	18
21. Artikulua	<i>Zuzendaritza betearazlearen osaketa eta bazkideen izendapena</i>	18
22. Artikulua	<i>Zuzendaritza betearazlearen funtzionamendua</i>	18
23. Artikulua	<i>Zuzendaritza betearazlean botere eta betebeharrak</i>	19
24. Artikulua	<i>Zaintza kontseilua</i>	20
25. Artikulua	<i>Zaintza kontseiluaren funtzionamendua</i>	21
26. Artikulua	<i>Zaintza kontseiluaren botereak</i>	23
27. Artikulua	<i>Antolamendu komun eta orokorrak</i>	25
28. Artikulua	<i>Bozka</i>	27
29. Artikulua	<i>Ohiko Biltzar Nagusia</i>	29
30. Artikulua	<i>Ezohiko Biltzar Nagusia</i>	30
31. Artikulua	<i>Kontularitza komisarioa</i>	31
32. Artikulua	<i>Kooperatiba berrikusketa</i>	31
33. Artikulua	<i>Urtaldi soziala</i>	32
34. Artikulua	<i>Dokumentu sozialak</i>	32
35. Artikulua	<i>Soberakinak</i>	32
36. Artikulua	<i>Erreserben partekatze ezintasuna</i>	32
37. Artikulua	<i>Kapitalaren erdia galtzea</i>	34
38. Artikulua	<i>Sozietatearen epemuga - Desegitea</i>	34
39. Artikulua	<i>SKOP eta IKKSen konfederazioko bazkide izatea</i>	34
40. Artikulua	<i>SKOP eta IKKSen konfederazioko bazkide izatea</i>	34

# SAR HITZA

## Testuinguru orokorra

Euskal herrian, hedabide independentearen bizitasuna biztanleak urteetan zehar mobilizatu dituen gaia izan da. Milaka urteko kultura aberatsa eta ingurumen geografiko erakargarria duen mugaz haraindiko lurralde honetan, informazioa biztanleen arteko kohesiorako garrantzia handiko tresna da. Testuinguru horretan garatzen da MEDIABASK, Ipar Euskal Herrirako bateragarriak diren hedabide multzoa proposatuz.

## Desmartzaren historikoa

“Iparla” elkarteak 2000ko apirilean sortu zen. “Ipar Euskal Herrian zen prentsa independente eskasaren aitzinean hausnartzea, aztertzea eta aterabideak atzematea” hartu zuen xedetzat.

Elkarte horrek “Le Journal du Pays Basque” egunkariaren plantan ezartzea lagundu zuen 2001 eta 2013 artean.

2007an, elkarteak Kazeta.eus sareko hedabidearen sortzea bultzatu zuen.

Urte berean haren estatutuak aldatu zituen. Izen berria hartu zuen, IPARLA BAIGURA KOMUNIKAZIOA, eta xedea zehaztu:

- Euskal Herriko prentsa independentearen garapena laguntzea
- Hedabideei babes pedagogikoa ematea kazetarien eta irrati esatarien formakuntza profesionalerako ekarpena eginez.
- Euskararen normalizazio linguistikoaren aldeko lana egitea.

2013an, arrazoi ekonomikoak medio “Le Journal du Pays Basque” egunkaria hestean, Le Journal du Pays Basqueko kazetari batzuek eta herritar talde batek, bazkide ohiak gehienbat, abentura horri segida bat eman nahi izan zioten. Hilabete batzuetako hausnarketaren ondotik, elkarteak bi proiektu berri abian eman zituen, “Mediabask l’Hebdo” paperezko astekaria eta “Mediabask.eus” sareko hedabidea.

Gaur egun Iparla Baigura Komunikazioa elkarteak hiru hedabide argitaratzen ditu:

- Mediabask l’Hebdo, ostegunetan Ipar Euskal Herri guziko kioskoetan salgai.
- Mediabask.eus informazio orokorreko sareko egunkaria
- Kazeta.eus informazio orokorreko euskarazko sareko egunkaria

Hedabide talde horren proiektua etengabeko garapenean da eta, aldi berean, tokiko paisaia mediatikoaren azterketa egiten segitzen du. Gisa horretan Radio Mediabask irrati baten sortzeko ekimena laguntzen du.

Iragan 23 urte horietan, elkarteak Hego Euskal Herriko EKHEK, Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkarteak (euskal hedabideen garapenerako egitura), lagundu du.

## IKKSaren Interes kolektiboko helburua

Informazioa ondasun komuna da. Lurralde bateko informazioaren hedatzaileen (eragile sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalak) eta hartzaile direnen erabiltzaile / irakurle / internauten arteko etengabeko elkarrekintzatik dator. Elkarrekintza hori animatzen duten hedabideetako erredakzioetako eta teknikako taldeak bien artean kokatzen dira, gaiak jorratuz, inkestak burutuz, dokumentatuz eta, artikuluei, erreportajeei eta informazioaren transmisiorako teknika berrien eta informazio horiek hartzeko moldeen bilakaerari egokituriko beste motei forma emanez.

MEDIABASK hedabide taldeak Euskal Herriko aktualitatearen berri ematea eta aktualitate horren inguruko eztabaida eta hausnarketa sortzea du helburu. Lurralde honen garapenaren zerbitzuko kalitatezko informazioa.

### *Esku hartze lurraldea eta proiektuaren lurralde lotura*

Mediabasken erreferentziako lurraldea Euskal Hirigune Elkargoak, Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak osatzen duten Euskal Herria da. Mediabaskek Ipar Euskal Herriarekin lotura duen aktualitatea jorratzen du nagusiki. Haatik, haren irakurleria zabalagoa da eta haren hedabideek jorratzen duten aktualitatea jarraitzeaz interesa duen oro barne hartzen du.

### *Jatorria/ideia/baloreak*

Haren lerro editoriala gizarte batek behar duen eztabaida demokratikorako ekarpena da, eta baita kontra botere baten existentziarako ere. Euskal Herriaren garapen politiko, ekonomiko eta sozialerako funtsezkoak diren gaitan eztabaida zentratzea ahalbidetzen du eta gizarte eta ingurumen mailako gai anitzetan ikuspegi berritzaile eta progresista ekartzen ditu. Biztanleen, eragileen eta lurraldearen arteko kohesioa sortzen du.

Haren frantseseko hedabideetako lerro editorialaren bidez eta Kazeta.eus euskarazko eskaintzaren bidez, Mediabaskek euskararen erabilpenaren normalizazioaren alde egiten du, lurraldean zentzu horretan garatzen diren hizkuntza politikekin koherentzian.

### *Aktibitatearen aurkezpena / zerbitzu eskaintza*

- Frantseseko sare bidezko hedabidea
- Paperezko astekaria
- Euskarazko sare bidezko hedabidea
- Beste hedabide batzuen garapenaren laguntza
- Hedabide eta informazioarekiko hezkuntza
- Soinuak eta bideoak ekoiztea multimedia-logika batean

### *Zein beharri erantzuten dio?*

Osatu den IKKSak hedabide baten partaide diren 3 familia handien artean erabakiak hartzeko beharri erantzuten dio.

- Hedabidea egiten dutenak
- Hedabidea erabiltzen dutenak
- Hedabidearen independentziari eta haren lurralde loturari atxikiak direnak

### **Balore eta printzipio kooperatiboak**

Interes kolektiboko kooperatiba sozietatearen hautuak Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak finkaturiko funtsezko balore kooperatiboekiko atxikimendua ekartzen du, ondoko baloreekin bereziki:

- Pertsona humanoaren gailentasuna
- Demokrazia
- Elkartasuna
- Bazkideztza anitza, helburutzat interes kolektiboa izanen duena haren bazkideen interesen gaineratik
- Xede sozialaren bidez lurralde zehatz bateko integrazio sozial, ekonomiko eta kulturala

IKKS estatutuek, antolakuntza eta helburuengatik, egokitasun ezin hobea dute jarraian aurkezten den proiektuarekin.

## **I. TITULUA      FORMA - IZENDAPENA - IRAUPENA - XEDEA - EGOITZA SOZIALA**

### **1. Artikulua      Forma**

2000ko apirilaren 10eko akta pribatu izenpetu bidez, elkartea 1901eko uztailaren 1eko legedi peko elkarte gisa sortu zen.

1947ko irailaren 10eko legearen 28bis artikulua aurreikusiriko prozeduraren baitan, 2023ko uztailaren 8an iragan biltzar nagusiak kapital aldakorreko interes kolektiboko kooperatiba sozietate anonimoaren hautua egin zuen, ondoko testuen menpe dena:

- honako estatutuak;
- kooperazioaren estatutuei dagozkion 1947ko irailaren 10eko 47-1775 legea, bereziki IKKSen estatutuei dagozkion II. Titulua eta interes kolektiboko sozietateari buruzko 2002ko otsailaren 21eko 2002-241 dekretua;
- Merkataritzako kodearen II. liburua eta bereziki L 225-1etik L 225-270era, R 225-1etik R 225-172era doazen artikulua eta L 231-1 eta R 210-1 artikulua eta ondokoak.

### **2. Artikulua      Izendapena**

Sozietatearen izena da: IPARLA BAIGURA KOMUNIKAZIOA

Sozietatearengatik heldu den eta hirugarrenengana bideratua den akta eta dokumentu orok, bereziki gutun, faktura, iragarki eta orotariko argitalpenak, izendapen soziala agertu behar du, "Zuzendaritza betearazlea eta zaintza kontseilua duen Kapital aldakorreko interes kolektiboko kooperatiba sozietate anonimoa" edo "Zuzendaritza betearazlea eta zaintza kontseilua duen Kapital aldakorreko IKKs" hitzak agertu behar ditu berehala, aitzinetik edo ondotik eta argiki irakurgarri.

### **3. Artikulua      Iraupena**

Sozietatearen iraupena 99 urtera finkatua da elkartea prefekturan deklaratu zen egunetik aitzina, hots, 2099ko apirilaren 10era arte, aitzinetik desegiten edo luzatzen ez den kasuan.

### **4. Artikulua      Xedea**

Sar hitzan zehazturiko interes kolektiboa bereziki ondoko aktibitateen bidez gauzatzen da:

- Prentsa informazio politiko eta orokorraren eremuan;
- informazio eta editorial edukiko ekoizpena eta eduki horren zuzeneko edo zeharkako ustiaketa medio eta forma guzien bidez, bereziki informazio prentsaren aldizkako argitalpenen bidez, euskarri mota guzietan (paper, Internet, etab. ...) eta hedapenerako baliabide guzietan (bereziki paperezko euskarri bidez edo Internetez, sare bidez, satellite eta hedapenerako beste teknologia elektroniko edo paperezko bidez);
- aldizkako argitalpenen ustiaketa, inprimaketa eta argitaratzea forma eta euskarri orotan, paper zein elektroniko, testu, audio, irudi finko zein animatu, bideo etab., hedabide ororen hedapena, publizitate mota ororen erabilpena.
- ekoizturiko informazioaren garapena eta hedapena ahalbidetzen duen jakitate elektroniko ororen sorkuntza, erostea, eskualdatzea eta, orokorkiago, informazio horien hedapena, eskuragarritasuna eta partekatzea ahalbidetzen duten teknologia berri ororena;
- ekoizpen eta zerbitzu interaktibo eta parte hartzaile ororen sorkuntza, garapena, sustapena eta ustiaketa
- aktibitateei dagozkion egin-molde, patente eta jabetza intelektualeko eskubide ororen sorkuntza, erostea, ustiaketa edo eskualdatzea;

Eta zuzenki edo zeharka lotuak diren aktibitate gehigarri, loturiko edo osagarri oro, eta baita zuzenen edo zeharka xede soziala gauzatzeko diren operazio zibil, komertzial, industrialak zein higigarrien, higiezinen eta kreditu operazioak ere.

Xede guzia kooperatibak argitaratzen dituen informazioaren erredakzioaren independentzia osoaren baitan gauzatzen da, zeinak lehen betebeharra egiarekiko duen, lehen leialtasuna herritarrekiko, lehen diziplina egiaztatzea eta lehen betekizuna independentzia.

Ikksaren xedeak 1947ko irailaren 10eko legearen hamabosgarren 19. artikuluan aipatzen diren hitzarmen, onespén eta gaikuntzarako hautagai izateko gaitasuna ematen dio.

## **5. Artikulua**    *Egoitza soziala*

Egoitza sozialaren kokagunea: 8 MARTINZAHARRENA OFIZIALE EREMUA, 64122 URRUÑA

Zaintza kontseiluaren erabaki bidez lekualdatzen ahalko da hurbilen den ohiko biltzar nagusiaren berrespenaren baldintzarekin.

Zaintza kontseiluak legearen arabera lekualdatzerik erabakiko balu, honek estatutuak araberan aldatzeko ahalmena du.

## II. TITULUA EKARPENA ETA KAPITAL SOZIALA - KAPITALAREN ALDAKORTASUNA - PARTE SOZIALAK

### 6. Artikulua *Ekarpenak eta hastapeneko kapital soziala*

Hastapeneko kapital soziala 22400 eurotan finkatu da, ehun (100) euroko 224 partetan banatua, kapital sozialaren aldakortasunagatik zenbakitu gabeak direnak eta bazkideen artean haien ekarpenaren arabera proportzionalki banatuak.

#### Ekarpen numerarioa

Kapitala bazkide mota desberdinen artean ondoko moldean partekatua da:

Nom des associés	Catégorie d'associé	Parts sociales souscrites	Capital souscrit	Apport libéré (versé) en €
<b>BLAISE Francis.</b> 01/04/1973. Pacsé 21 quai Amiral Bergeret 64100 Bayonne	Salariés	5	500€	500€
<b>DAGUERRE Oihana.</b> 27/01/1981. Pacsée 175 chemin Zubizabaletako – Maison Zaldaina 64250 Espelette	Salariés	1	100€	100€
<b>FAUVEAU Guillaume.</b> 25/05/1982. Célibataire. 7 avener du Dr Maurice Delay. Rés. Les Tourettes. Bat D2 64100 Bayonne	Salariés	1	100€	100€
<b>GONI Haize.</b> 15/08/1987. Célibataire 1 allée Baratzeder 64500 Saint Jean de Luz	Salariés	15	1500€	1500€
<b>GRACIET Patrick.</b> 30/10/1086. Pacsé. Quartier Jaimetegi 64240 Isturits	Salariés	1	100€	100€
<b>IBARRA Andrea.</b> 08/10/2000. Célibataire 7 rue Parlementia, Bât. Flôka. Apart. 75 64210 Bidart	Salariés	1	100€	100€
<b>LEFORT Jean-François.</b> 03/08/1970. Célibataire Maison Gaindegia 64 240 Bonloc	Salariés	15	1500€	1500€
<b>ROUX Willy.</b> 09/03/1985. Pacsé. 9 chemin d'Ibos 64100 Bayonne	Salariés	1	100€	100€

<b>SAUZET Aurore.</b> 03/07/1978. Célibataire 639 chemin Etxehasia. 64480 Ustaritz	Salariés	3	300€	300€
<b>TABERNA Goizeder.</b> 06/04/1980. Mariée 372 Chemin Arraioa 64310 Ascain	Salariés	15	1500€	1500€
<b>THOMMEN Felix.</b> 08/12/1986. Célibataire 13 Allée des alouettes 64600 Anglet	Salariés	15	1500€	1500€
<b>BEDEREDE Jean-François.</b> 22/02/1974. Pacsé Quartier Olha – Maison Gasintoenea 64310 Saint Pée sur Nivelles	Abonnés	2	200€	200€

<b>BIDEGAIN ARROSAGARAY Iurre.</b> 16/11/1989. Célibataire 43 avenue de Lissardy. Rés. Zuhaiti 64700 Hendaye	Abonnés	1	100€	100€
<b>ETCHEVERRY Antton.</b> 22/12/1976. Marié Quartier Artikite – Elizetxekoborda 64220 Ainhice	Abonnés	7	700€	700€
<b>GARIN Aitor.</b> 15/10/1967. Célibataire Sta. Barbara 17, 2.A. 20017 Altza - Donostia	Abonnés	5	500€	500€
<b>ROUGET Antton.</b> 20/05/1990. Célibataire 19 bis rue Romainville 75019 Paris	Abonnés	3	300€	300€
<b>SALABERRY Jean-Louis.</b> 07/02/1957. Célibataire 225 chemin Sendaonea 64990 Villefranque	Abonnés	3	300€	300€
<b>SA Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkarte - EKHE</b> – représentée par <b>Juan Pedro PLAZA LUJANBIO</b> TVA Intracom. : ES A-48986632 CIF (N° entreprise) : A-48986632 Gran Via N°2-4° A 48 000 Bilbao	Partenaires	100	10000€	10000€
<b>Association Radiobask</b> représentée par <b>karine ORELLANA</b> N° Siret 910 665 033 000 15 8 ZA Martinzaharenia	Partenaires	10	1000€	1000€

64122 Urrugne				
<b>Association Hezimedia</b> représentée par <b>Béatrice MOLLE</b> N° Siret 813 692 696 000 12 1 <sup>er</sup> étage de la Mairie 64780 Bidarray	Partenaires	10	1000€	1000€
<b>Association Gatuzain Argitaletxea</b> représentée par <b>Joana HIRIGARAY</b> N° Siret 440 278 463 00029 Eihartzea 81 rue Francis Jammes 64240 Hasparren	Partenaires	10	1000€	1000€
<b>TOTAL</b>		<b>224</b>	<b>22400€</b>	<b>22400€</b>

22400 euro, osoki kitaturiko parteen zenbatekoa ordezkatzeko duena, zeina erregulariki ordaindua izan den Sozietatearen izenean CREDIT COOPERATIF bankuan irekiriko kontu batean, hartzaile den bankuak eginiko ziurtagiriaren bidez justifikaturik.

## 7. Artikulua *Kapitalaren aldakortasuna*

Kapitala aldakorra da. Uneoro emenda daiteke, bai bazkideek eginiko harpidetza berrien bidez bai bazkide berriak onartuz.

Kapitala ttipitu daiteke bazkideen erretiratzearen, bazkide izaera galtzearen, kanporatzearen, heriotzaren eta diru itzultzearen ondorioz, legeak eta estatutuek aurreikusten duten kasuetan eta jarraian aurreikusten diren mugen baldintzen baitan.

## 8. Artikulua *Gutieneko kapitala*

Kapital soziala ezin da 18.500 €-tik beherakoa izan, ezta, diru itzultzearengatik, kooperatibaren sortzeaz geroztik lortu den kapital handienaren laurdenetik beheiti apaldua ere.

1947ko irailaren 10eko legearen 7. artikulua aplikatzearen bidez, Merkataritza kodeko L 231-1 artikuluen eta ondokoen menpe diren kapital aldakorreko sozietate forma hartzen duten kooperatibak ez dira haien kapitalak erdietsi dezakeen gehienezko zenbatekoa estatutuetan finkatzera derrigortuak.

## 9. Artikulua *Parte sozialak*

### 9.1 Balore nominalak eta harpidetzak

Parte sozialen balorea beti berdina da. 6. artikuluan finkatua den zenbatekoa baino gorago izatera pasako balitz, jadanik dauden parteen bateratze bat izanen litzateke, bazkide guziak kooperatibako kide izaten jarraitzeko gisan.

Bazkideak ez dira bazkide bilakatzerakoan parte bat baino gehiago harpidetu eta kitatzera behartuak, 14 artikuluko xedapenak betetzearen baldintzarekin.

Parteen harpidetza ororen kasuan, bazkideak bi ale originaleko harpidetza agiria izenpetu beharko du.

Bazkide edo parteen jabe ororen ardura erosi edo eskuratu dituen parteen baloreari mugatzen zaio.

Parte sozialak nominatiboak eta zatiezinak dira. Sozietateak bakoitzarentzako jabe bakarra baizik ez du aitortzen.

## **9.2 Transmisioa**

Parte sozialak, dohainik edo ordaindurik, bazkideen artean soilik emangarriak dira, Zaintza kontseiluak eskualdatzea baimendu eta gero, eta inor ez daiteke bazkide izan estatutueta aurreikusiak diren baldintzei jarraikiz ez bada onetsia izan.

Eskualdatzeak ezin du ondorioztat izan bazkide batek dituen parte kopurua gutitzea, 14. artikulua aplikatzearekin bete behar dituen engaiamenduen ondorioz ukan behar diren gutieneko kopurutik beheiti.

Pertsona fisiko den bazkidearen heriotzak bazkide izaera galtzea du ondorio. Ondorioz, parteak ez dira heriotzagatik emangarriak.

## **10. Artikulua** *Harpidetza berriak*

Kapitala bazkideek harturiko harpidetza ororen bidez emenda daiteke, zeinak, haren parteak erosi eta kitatu aitzin, Zaintza kontseiluak Zuzendari Orokor Bakarraren presentzian Zuzendaritza betearazleak emaniko aldeko iritzia izan beharko duen eta bi ale originaleko agiri metagarria izenpetu.

## **11. Artikulua** *Parteen baliogabetzea*

Bazkide izaera galdu, kanporatua edo zendu izanaren ondorioz erretiratzen diren bazkideen parteak baliogabetuko dira. Salbu 18.3 artikuluan aurreikusiriko kasuan, eta, dirua itzultzeko modalitateak edozein izanik ere, parteak bazkide izaeraren galtze egunean edo diru itzultze partzialaren egunean baliogabetzen dira.

Ordezkatzen dituen zenbatekoak hartze agiri arrunt gisa asimilatuak dira eta 18. artikuluan aurreikusiriko baldintzetan ordainduak.

Ezin da parteen erretiratzerik edo baliogabetzerik izan, baldin eta ondorioztat kapital soziala 8. artikuluan aurreikusiriko mugatik beheititzea badu.

### III. TITULUA    BAZKIDEAK – ONARPENAK – ERRETIRATZEAK – KONKURRENTZIA-EZA

#### 12. Artikulua    *Bazkideak eta kategoriak*

Legeak bazkideen artean bik bederen kooperatiban izaera bikoitza ukan dezaten derrigortzen du, bazkide izaera eta:

- Langile izaera
- Kooperatibaren aktibitateen dohainikako edo ordaineko onuradun izaera

Legeak hirugarren bazkide baten presentzia derrigortzen du ere, bazkide izaera ukateaz gain ondoko izaeretatik bat ere bete beharko duena:

- Kooperatibaren aktibitatean dohainik parte hartzen duen pertsona fisikoa izatea;
- Kolektibitate publiko bat edo haren elkartea izatea;
- Kooperatibaren aktibitateari jadanik aipatu ditugun baliabideak ez diren baliabide bidez ekarpena egiten dion pertsona fisiko edo morala izatea.

Halere, partzuer diren kolektibitate publikoen artean lurralde kolektibitateak edo hauen elkarteak baldin badaude, azken hauek ezingo dira Sozietatearen kapitalaren %50 baino gehiagoren jabe izan.

Sozietateak legezko betebeharrak honi erantzuten dio estatutuak izenpetzeko orduan. Sozietateak IKKS irauten duen artean behar den guziaz egiten du arau hori errespetatzeko.

Sozietatea irauten duen artean hiru bazkide mota horietarik bat desagertuko balitz, Zuzendaritza betearazleak ez ohiko biltzar nagusira deitu beharko luke, egoera erregularizatu behar den edo aktibitatea beste kooperatiba forma desberdin batekin jarraitu behar den erabakitzeko.

#### 12.2    **Kategoriak**

Kategoriak Sozietatearen aktibitateekin izaera desberdineko harremana duten bazkide taldeak dira. Hauen elkarketak IKKSa ezaugarritzen duen bazkide taldearen anizkoitza osatzen du. Kategoria horiek aldakorrak izan daitezkeen hautagaitzarako, harpidetzarako, onarpenerako eta bazkide izaeraren galtzerako baldintzak aurreikusten dituzte.

Kategoriak bata bestearengandik esklusiboak dira.

Kategoria berrien sortzea eta kategoria horien aldatzea ezohiko biltzar nagusi bidez erabakitzen dira.

IPARLA BAIGURA KOMUNIKAZIOA Ikksak ondoko bazkide kategoriak finkatu ditu:

1. Langileen kategoria: Lan kontratu mugagabe baten bidez kooperatibari lotua den edo entsegu epealdia finitu ondoren kooperatibaren baitan 3 hilabeteko lan epealdia bete duen pertsona fisiko oro;
2. Harpidedunen kategoria: Hedabidearen zerbitzuren batera harpidetua den pertsona fisiko oro;
3. Partzuerren kategoria: Helburuekin bat eginez Mediabask hedabide taldearen garapeneraren alde egiten duen pertsona fisiko oro

Kategoriak aldatu nahiko lukeen bazkide batek haren galdea Zuzendaritza betearazleko Lehendakariari igorri behar dio, zein kategoriatan sartu nahiko lukeen zehaztuz. Zuzendaritza betearazleak soilik du kategoria aldaketa erabakitzeko eskumena, Zuzendari Orokor Bakarraren aitzinean Zaintza kontseiluak haren iritzia agertu ondoren.

### **13. Artikulua** *Hautagaitzak*

Hautagai izan daiteke 12.2 artikuluan finkaturiko kategorietan sartzen den eta estatutuetan aurreikusiak diren onarpenerako baldintzak betetzen dituen pertsona fisiko oro.

### **14. Artikulua** *Bazkideen onarpena*

Onarpena jarraian agertzen diren xedapenen menpe dago.

Pertsona fisiko edo moral batek bazkide bilakatu nahi duelarik, haren hautagaitza Zuzendaritza betearazleari idatziz aurkeztu behar dio.

Bazkide berri baten onartzea zuzendaritza betearazlearen egitekoa da soilik, zuzendari orokor bakarrik baldin bada zaintza kontseiluak haren iritzia agertu ondoren. Hautagaitza ez bada onartzen, ez duena arrazoitua izan beharrik, hautagaiak galdea urte guziz errepika dezake.

Bazkide estatutua Administrazio Kontseiluak erabaki ondoren sartzen da indarrean, aurreikusiak diren estatutuetako baldintzen baitan harpideturiko partearen edo parteen kitzazearen baldintzarekin.

Bazkideetarako hautagai bat onartzean, harpideturiko parte sozialak osoki kitatu behar dira harpidetzerakoan.

Bazkide estatutuak kooperatibista izaera ematen du. Bazkide baten ezkonlagunak ez du, ezkonlagun gisa, bazkide izaerarik eta beraz ez da kooperatibista. Xedapen berak aplikatzen dira elkertasunezko hitzarmen zibilen kasuan.

Bazkideetarako hautagaitzak Ikksaren estatutuen eta barne arauaren onarpenera darama.

Bazkide bakoitza, haren harpidetzaren zenbatekoa edozein izanik ere, inolako abantaila edo pribilegio motarik eskuratzen ez saiatzera engaiatzen da eta argitaratze erabakiak eta argitalpen baldintza finantzariak errespetatzera derrigortua da.

#### **14.1 Langileen onarpenerako modalitateak**

Lan kontratu mugagabe baten bidez kooperatibari lotua den edo entsegu epealdia finitu ondoren kooperatibaren baitan 3 hilabeteko lan epealdia bete duen pertsona fisiko orok bazkideetarako hautagaitza aurkez diezaioke Zuzendaritza betearazleari.

Langileek bazkide gisa onarpenerako galdea egiteko baldintzak errazteko gisan, kooperatiba langilearekin lotzen duen kontratu orok ondoko aipamenak izanen ditu:

- Enpresaren interes kolektiboko kooperatiba sozietate estatutua eta bazkideen artean langileak ohiko gisa barne hartzeko betebeharrak etengabea
- Kooperatibaren estatutuen kopia baten ematea
- IKKSen araudi juridikoari dagozkion berezitasunen langilearen ezagutza

Langile Bazkide gisa onartua delarik, gutienez parte sozial 1 hartzen eta kitatzen du. Gainera, urtaldian zehar Sozietatearen partetik eskuraturiko ordainaren %1a, kotizazio sozialen menpe dena, hartzera eta kitatzera engaiatzen da.

Haatik, Biltzar nagusiak, urtaldi sozialaren hastapenean behar bezala arrazoiturik harturiko erabaki bidez, 1. atalean aurreikusirik engaiamenduak zenbateko apalagoan finka ditzake.

Bazkide langilearen harpidetza engaiamendua bukatutzat ematen da honek 1.500 €-ko kapital soziala hartzen duelarik.

Babes eta iraunbide judizial baten kasuan, planaren onarpeneko epaia edo Sozietatearen onez oneko edo justizia likidazioa gertatu arte, langile bazkideek ez dute prozedura hastapenetik aitzina parte berrien erosterik izanen.

#### **14.2 Harpidedunen onarpenerako modalitateak**

Harpidedun oro parte sozial bat harpidetuz eta kitatuz kooperatibako bazkide bilaka daiteke, Zuzendaritza betearazleak finkaturiko baldintzetan eta Zuzendaritza betearazleak onarpenaren aurkako iritzia diskrezionalki ez agertu izanaren baldintzarekin, zuzendari orokor bakarrik baldin bada zaintza kontseiluak haren iritzia agertu ondoren.

Zuzendaritza betearazlea onarpenaren aurka agertuz gero, zuzendari orokor bakarrik baldin bada zaintza kontseiluak haren iritzia agertu ondoren, harpidetza galdearekin ordainduriko dirua itzuliko zaio hautagaiari.

#### **14.3 Partzuerren onarpenerako modalitateak**

Partzuer oro kooperatibako bazkide bilaka daiteke hamar (10) parte sozial hartuz eta kitatuz, Zuzendaritza betearazleak finkaturiko baldintzetan eta Zuzendaritza betearazleak onarpenaren aurkako iritzia diskrezionalki ez agertu izanaren baldintzarekin, zuzendari orokor bakarrik baldin bada zaintza kontseiluak haren iritzia agertu ondoren.

Zuzendaritza betearazlea onarpenaren aurka agertuz gero, harpidetza galdearekin ordainduriko dirua itzuliko zaio hautagaiari.

### **15. Artikulua** *Bazkide izaeraren galtzea*

Bazkide izaera galtzen da:

- izaera horren borondatezko uzte bidez, Zuzendaritza betearazleko Lehendakariari idatziz jakinarazirik eta berehala indarrean sartuko dena, 11. Artikuluko xedapenak bete izanaren baldintzarekin;
- pertsona fisikoa den bazkidearen heriotzaren bidez;
- pertsona morala den bazkidearen justizia likidazio erabaki bidez;
- 16. artikuluan finkatuak diren baldintzen araberrako kanporatze bidez;
- bazkide izaera eskubidearen galtze bidez;

Bazkide izaera eskubide osoz galtzea gertatzen da:

- bazkide batek 12. artikuluko agintzen dituen baldintzetako bat betetzeari uzten diolarik;
- 14. artikuluko agintzen duen harpidetzarako engaiamendua gauzaten ez delarik;
- bazkide langilearentzat haren lan kontratuaren etete datan, kontratua hausteko arrazoia edozein izanik ere. Halere, bazkide izaten segitu nahi badu eta 12. artikuluko baldintzak betetzen dituen artean, langileak bazkide kategoriaren aldaketa eskatzen ahalko dio kategoria aldaketa erabakitzeko eskumena duen bakarra den eta aitzin-abisua bukatu aitzin erabaki beharko duen Zuzendaritza betearazleari;
- neholako aktibitatearik ez duen 1901 legedipeko elkarte ororen kasuan;
- urteko ohiko bi biltzar nagusitan jarraian presente edo ordezkaturia izan ez den bazkidea ondoko biltzar nagusian, hots, hirugarrenean jarraian, presente edo ordezkaturia ez delarik.

Zuzendaritza betearazleak hunkitua den bazkideari haren huts egitearen ondorioen berri eman beharko dio berantetik hirugarren biltzar nagusirako deialdiarekin batera. Abisu hori eskuratze agiria duen gutun artamendatu bidez helarazi beharko da. Aldez aurreko informazio horren baldintzarekin, bazkide izaeraren galtzea biltzarra bururatzean sartuko da indarrean.

Dena den, bazkide izaeraren eskubide osoko galtzea hunkitua denari eskuratze agiria duen gutun artamendatu bidez jakinaraziko dion Zuzendaritza betearazleak egiaztatzen du.

Azpian diren xedapenek ez dituzte gutieneko kapitalari dagozkion 8. artikulukoak deuseztatzen.

Urtaldiko kontuei buruzko erabakiak hartzen diren biltzar nagusian, Zuzendaritza betearazleak bazkideztaren egoera osoaren berri ematen du, bereziki kategoria bakoitzean bazkide izaera galdu duten bazkideen kopuruarena.

## **16. Artikulua** *Kanporatzea*

Estatutuen aldaketarako finkatuak diren baldintzetan erabakitzen duen bazkideen biltzar nagusiak, bazkide gisa hutsegite bat egin eta Sozietateari kalte material edo morala eragin dion bazkidea kanpora lezake. Kanporatzera daraman gertakaria Zuzendaritza betearazleak egiaztatzen du, zeineko Lehendakariak hunkitua denari justifikazio oro galdegiteko eskumena duen, konkurrentzia-ezari dagokion 19. artikuluaaren aplikatzeaz gain.

Aldez haurretik hunkituari biltzarrerako deialdi berezitua igorri behar zaio haren defentsa prestatzeko parada izan dezan. Biltzarrak kalterik dagoen molde librean estimatzen du.

Kasu honetan, bazkide izaeraren galtzea indarrean sartzen da kanporatzea erabaki duen biltzarra iragan den egunean.

## **17. Artikulua** *Bazkideek eskaturiko diru itzultze partzialak*

Diru itzultzearen galdea Zuzendaritza betearazleko Lehendakariari eskuratze agiria duen gutun artamendatu bidez edo deskargu agiri truk eskura emanez egiten zaio.

Diru itzultze partzialak Zuzendaritza betearazlearen baimenaren menpe dira.

Honako estatutueta 14. artikuluan aurreikusiriko harpidetzarako estatutueta gutxienekoa gainditzen duen kapitalaren parte baizik ez daiteke kontuan hartu.

## **18. Artikulua** *Parte sozialaren dirua itzultzeko modalitateak*

### **18.1 Itzultzekoak diren diru kopuruak**

15. artikulutik eta 17. artikulura aurreikusiriko kasuetan bazkideei itzuli behar zaien kapitalaren zenbatekoa bazkide izaera behin betiko galdua izan den urtaldia bukatzen delarik edo bazkideak haren kapital sozialaren diru itzultze partziala eskatzen duelarik erabakitzen da.

Bazkideek haien partearen zenbateko nominalaren ordainketarako eskubidea dute soilik, urtaldia bukatzean ager daitezkeen balizko galtzearen deskontua egin ondoren.

Ordaintzekoa den parte sozialaren balorea kalkulatzeko, balizko galtzeak lehenasunez estatutueta erreserbetan sartzen direla hitzartua da.

## **18.2 5 urteren baitako epean gertatzen den galtzea**

Gertatuko balitz, bazkide izaeraren galtzea eta geroko bost urteko epearen baitan, galtzeak bazkidea kooperatibako bazkide zen urtaldietan gertatzea, ordaintzekoa den kapitalaren balorea galtze horien proportzioan ttipitua litzateke. Bazkide ohiaren parteen zati bat edo osotasuna ordaindua litzatekeen kasuan, kooperatibak soberakin kobratua eskatzeko eskubidea luke.

## **18.3 Diru itzultzeen ordena kronologikoa eta diru itzultzeen gelditzea**

Diru itzulketak, bazkide izaeraren galtzearen edo diru itzultze partzialak egiaztatu diren ordena kronologikoan eginen dira. Ezin da ordena kronologikoa ez jarraitu, aldez aurreko diru itzultze kasua balitz ere.

Diru itzultzeek ezin dute ondorioztat izan kapitala 8. artikuluan aurreikusia den guttieneko zenbatekotik beheiti apaltzea. Kasu horretan, parteen baliogabetzea eta diru itzultzeak kapitala guttieneko horretan bederen mantentzea ahalbidetuko duen harpidetza berrien baldintzarekin baizik ez dira gauzatuko.

Bazkide baten parteak baliogabetzea ezinezkoa delarik, bazkide ohia bozka eskubiderik gabeko kapitalaren jabea bilakatuko da. Ez du bazkideen biltzarretan parte hartzen. Parte sozialaren ordainketa balorea parte sozialak ezeztatuak izan diren urtaldia bukatzean kalkulatzeko da.

## **18.4 Diru itzulketarako epea**

Bazkide ohiek eta hauen eskubidedunek, edo diru itzulketa partziala eskatu duten bazkideek, ezin dute urte bateko (1) epea aitzin haien parteen itzulketaren baitan zor zaien diru ordainketa eskatu salbu, Zuzendari Orokor Bakarraren aitzinean Zaintza kontseiluak haren iritzia agertu ondoren, zuzendaritza betearazleak aldez aurreko ordainketa erabakitzen badu. Epea hasten da bazkide izaeraren galtze datatik edo diru itzulketa partzialaren eskaeraren eskuratze datatik aitzina.

Bazkide ohiei edo diru itzultze partziala eskatu duten bazkideei zor zaien zenbatekoa interesik gabekoa da.

## **18.5 Oinordekoak eta eskubidedunak**

Honako artikuluko xedapenak hil den bazkidearen oinordekoei eta eskubidedunei aplikatu dakizkieke.

## IV. TITULUA BOZKA KOLEGIOAK

### 19. Artikulua Bozka kolegioen definizio eta aldaketak

Bozka kolegioak ez dira eskubide berezien jabe diren edo haien bazkideei eskubide bereziak ematen dizkieten instantziak. Bazkide bat = bozka bat printzipioari uko egin gabe, biltzar nagusian bozka bakoitzaren emaitzak kontuan hartzea ahalbidetzen dute, bozka bakoitzaren emaitza kooperatibisten kopuruaren edo engaiamenduaren arabera neurtuz. Gisa horretan bazkide taldeen arteko oreka eta kooperatibaren baitako kudeaketa demokratikoaren bermea atxikitzeo parada ematen dute.

Kolegioetako kideak haien kolegioarekin loturiko gaiez mintzatzeko nahi beste elkartu daitezke. Bilkura horiek ez dituzte Merkataritza kodeko xedapenen arabera biltzarrak osatzen, eta bilkura horien fresak ez ditu Sozietateak haren gain hartzen. Hartan har daitezkeen erabakiak beraz ez dira ez Sozietatearentzat, ez ordezkari sozialentzat ez bazkideentzat lotesleak.

#### 19.1 Definizio eta osaketa

Sozietatearen baitan hiru bozka kolegio finkatuak dira. Hauen bozka eskubidea eta osaketa ondokoak dira:

Kolegioaren izena	Bozka kolegioaren osaketa	Bozka eskubidea
Langile kolegioa	Lan kontratu mugagabe baten bidez kooperatibari lotua den edo entsegu epealdia finitu ondoren kooperatibaren baitan 3 hilabeteko lan epealdia bete duen pertsona fisiko oro.	%40
Harpidedun kolegioa	Hedabidearen zerbitzu batera harpidetua den pertsona fisiko oro	%30
Partzuer kolegioa	Helburuekin bat eginez Mediabask hedabide taldearen garapenaren alde egiten duen pertsona fisiko oro	%30

Bazkideen biltzar nagusietan, biltzarrak deliberoa onartu duen finkatzeko, deliberoen emaitzen batuketa bozka kolegio bidez egiten dira, zeinei gorago diren koefizienteak aplikatzen zaizkien **proportzionaltasunaren araudia** jarraituz.

Bazkide bakarra aski izanen da ganean aipatzen diren kolegio bat eskubide osoz sortu ahal izateko.

Kolegio horiek ez dira kategorien bidez aitzinetik egituratuak eta oinarri desberdinekin osatu daitezke.

Bazkide bakoitza kolegio bakarraren menpe da. Bozka kolegio bat baino gehiagora egokitzeko aukera litzatekeen kasuan, Zuzendaritza betearazleak erabakitzen du bazkidea zein kolegioaren menpe izanen den.

Bozka kolegio batekoa izateari uzten dion baina beste batekoa izateko baldintzak betetzen dituen bazkide batek Zuzendaritza betearazleko Lehendakariari talde aldaketa eska liezaioke. Zuzendaritza betearazleak, Zuzendari Orokor Bakarraren aitzinean Zaintza kontseiluak haren iritzia agertu ondoren galdea onartu edo ukatuko du, eta haren erabakiaren berri biltzar nagusiari emanen dio.

#### 19.2 Bozka kolegio baten edo gehiagoren eskasia

Sozietatea sortzean hemen aipaturiko bozka kolegio batek edo bik bazkiderik ez badute edo Sozietateak irauten duen artean Bozka kolegioak desagertuko badira, jakinez hauen kopurua ezin dela hirutik (3) beheitikoa izan, dagozkien bozka eskubideak molde berdinzalean banatuko dira, jakinez kolegio baten bozka kopuruak ezingo duela %50eko heina gainditu.

Sozietateak irauten duen artean bozka kolegioen kopurua hirutik (3) jautsiko balitz, 19.1 artikuluan aurreikusiriko bozken oreka ez litzaieke gehiago biltzar nagusiko erabakiei aplikatuko.

Lehenago aipatu bezala, bazkide bat izatea aski da eskubide osoz bozka kolegio bat sortzeko.

### **19.3 Bozka kolegioen osaketaren, kopuruaren edo bozka eskubideen banaketaren aldaketa**

Kolegioen osaketaren edo bozka kolegioen kopuruaren aldaketa Zaintza kontseiluak ezohiko biltzar nagusian proposa dezake.

Aldaketa eskaera bat bazkideen eskutik ere etor daiteke 27.4 artikulua aurreikusten dituen baldintzen baitan. Zaintza kontseiluko Lehendakariari igorri behar zaio. Zaintza kontseiluaren proposamenak edo bazkideen eskaerak arrazoitua izan behar du eta aldaketa proiektu bat edo batzuk berekin ekarri, izan kolegioen osaketarena, izan hauen kopuruarena, edo biena.

Bozka kolegioen osaketaren edo kopuruaren aldaketaz bestalde, 18.4 artikuluko xedapenetan aurreikusiriko baldintzen baitan, Zaintza kontseiluak edo bazkide batzuek kolegioek dituzten bozka eskubidearen banaketaren aldaketa eska dezakete ezohiko biltzar nagusian.

## **V. TITULUA      ZUZENDARITZA BETEARAZLEA ETA ZAINZA KONTSEILUA**

### **20. Artikula      *Zuzendaritza betearazlea***

Zaintza kontseiluaren kontrolpean bere funtzioak beteko dituen Zuzendaritza betearazleak zuzenduko du Sozietatea, azpian azaltzen diren legezko eta arauzko xedapenei eta estatutuetako estipulazioei jarraikiz.

### **21. Artikulua      *Zuzendaritza betearazlearen osaketa eta bazkideen izendapena***

Zuzendaritza betearazlea Zaintza kontseiluak lau urterako izendaturiko pertsona fisikoek osatzen dute, Sozietateko bazkide izan edo ez.

Zuzendaritza betearazleko bazkide kopurua gehienez bost lagunekoa da.

Sozietatearen kapital soziala 150.000 €-koa baino apalagoa baldin bada, Zuzendari Orokor Bakarra izenda daiteke.

Zaintza kontseiluak Zuzendaritza betearazleko bazkide bati Lehendakari izaera ematen dio.

Zuzendaritza betearazleko bazkide gisa izendatua izateak ez du Sozietatearen eta bazkidearen artean izenpeturiko lan kontratuaren onura galarazten. Zuzendaritza betearazleko bazkidearen jardunaren eteteak ez du hunkitua denaren eta Sozietatearen artean hitzartu den lan kontratuan eraginik.

Bete gabeko posturik izanen balitz, Zaintza kontseiluak bi hilabeteren baitan gehienez ordezeko bat atzeman beharko du Zuzendaritza betearazlearen erreberritzera arte gelditzen den denborarako.

Zuzendaritza betearazleko kide izateko adin muga hirurogeita hamar urtekoa da. Zuzendaritza betearazleko kide bat edo Zuzendari Orokor Bakarra muga horretara heltzen delarik, berezko dimisio emailtzat joko da.

Tutoretzan emana den Zuzendaritza betearazleko kidea edo Zuzendari Orokor Bakarra berezko dimisio emailtzat joko da.

Zuzendaritza betearazleko kideek hautagaitza errepika dezakete. Zaintza kontseiluak uneoro kargutik ken ditzake, gai hori aipagaien zerrendan sartu ez bada ere.

### **22. Artikulua      *Zuzendaritza betearazlearen funtzionamendua***

#### **22.1      Zuzendaritza betearazleko Lehendakaria**

Zaintza kontseiluak Sozietatearen ordezkaritza bermatzen duen Zuzendaritza betearazleko Lehendakaria izendatzen du.

Sozietateak honako estatutuetako 21. artikuluko 3. ataleko baldintzak betetzen dituelarik eta Zuzendaritza betearazlea bazkide batez soilik osatua delarik, azken honek Zuzendari Orokor Bakarraren titulua du.

#### **22.2      Zuzendaritza betearazlearen bilkurak**

Zuzendaritza betearazlea Sozietatearen interesak eskatzen duen beste biltzen da, Lehendakariak deialdia eskura dituen baliabide oro erabiliko du, ahozkoa barne, eta bilkura egoitza sozialean edo gutunean agerturiko beste edozein lekutan iraganen da.

Zuzendaritza betearazleko kide bakoitzak, saioaren aipagai zerrenda zehatzuz, Zuzendaritza betearazlea biltzera dei lezake, hau bildu gabe bi hilabete baino gehiago iragan bada.

Erabakien baliozkotasunerako, Zuzendaritza betearazleko kideen presentzia beharrezkoa da. Hori betetzeko baldintzarekin, Zuzendaritza betearazleko kide batek beste bat ordezkari dezake idatzizko ahalorde berezia baldin badu. Zuzendaritza betearazleko kide batek ere ezin du ahalorde bat baino gehiago ukan.

Erabakiak presente diren Zuzendaritza betearazleko kideen gehiengoaren bozka bidez hartzen dira, Zuzendaritza betearazleko kide bakoitzak bozka bakarra ukanik. Bozka berdinketaren kasuan, Zuzendaritza betearazleko Lehendakariaren bozka gailentzen da.

Zuzendaritza betearazleko bilkuran parte hartzen duten eta izenpetu behar den Zuzendaritza betearazleko kideen presentzia erregistroa egiten da.

Zuzendaritza betearazlearen erabakiak bilkura agiri bidez egiaztatuak dira eta zenbakitua eta sinatua den erregistro batean atxikiak.

### **23. Artikulua** *Zuzendaritza betearazlearen botere eta betebeharrak*

#### **23.1 Botereak**

Zuzendaritza betearazlea botere zabalenen jabe da egoera guzietan Sozietatearen interesen alde egiteko, honen xede sozialaren muga eta Zaintza kontseiluari eta bazkideen biltzarrari legeak espresuki ematen dizkion botereen errespetuan.

Bereziki:

- ohiko biltzar nagusiari aurkeztu behar zaizkion egoera agiriak, inbentarioak, bilana eta kontuak onartzen ditu;
- biltzar nagusirako deialdia egiten du eta aipagaien zerrenda finkatzen;
- biltzar nagusiak onartu beharko duen kudeaketa soberakin garbien aitzin banaketa erabakitzen du;
- titulu parte-hartzaileen esleitzea erabakitzen du.

Haatik, nahitaez Zaintza kontseiluaren menpe dira:

- erredaktoreburuaren izendapena;
- berme emateak, abalak eta garantiak;
- Zuzendaritza betearazleko edo Zaintza kontseiluko kide baten eta Sozietatearen arteko hitzarmenen adostea.

#### **23.2 Zuzendaritza betearazlearen betebeharrak**

Zuzendaritza betearazleak Sozietatearen kudeaketan izan diren ekintza edo gertakaria nagusiak agertzen dituen hiru hilabeteroko txostena aurkezten dio zaintza kontseiluari.

Urtaldi bakoitza bururatzean eta hiru hilabeteko epearen baitan, Zuzendaritza betearazleak Zaintza kontseiluari urteko kontuak aurkezten dizkio berrikuste eta kontrolerako helburuz, eta baita bazkideen urteko biltzar nagusirako egiten den txostena ere.

Aurkezpen hori biltzar nagusirako deialdiaren argitaratzea edo igortzea baino hamabost egun lehenago gutienez gertatu behar da.

Zaintza kontseiluak Zuzendaritza betearazlearen txostenari eta bururaturiko urtaldiko kontuei buruzko haren oharrak aurkezten dizkio biltzarrari.

## **24. Artikulua** *Zaintza kontseilua*

Zaintza kontseiluak Zuzendaritza betearazleak bermaturiko Sozietatearen kudeaketaren kontrola bermatzen du.

### **24.1 Zaintza kontseiluaren osaketa eta bazkideen izendapena**

Zaintza kontseiluko kide kopurua hiru eta hemezortzi artekoa da.

Zaintza kontseiluko kideak biltzar nagusian isilpeko bozken gehiengoa eskuratuz izendatzen dira.

Zaintza kontseiluko kideak pertsona fisikoak edo pertsona moralak izan daitezke. Azken kasu honetan, pertsona moralak ordezkari iraunkor bat izendatu behar du, baldintza eta betebeharrak beren menpe dena eta haren izenean Zaintza kontseiluko kide izanez gero lituzkeen ardura zibil eta penal berak dituen, ordezkatzeko duen pertsona moralaren ardura solidarioarentzako kalterik gabe.

Hirurogeita hamar urte gainditu dituzten Zaintza kontseiluko kideen kopuruak ezin du Zaintza kontseiluko kideen herena gainditu. Pertsona moralen ordezkari iraunkorrak kuota horren baitan kontuan hartzen dira. Muga hori gainditzen bada, Zaintza kontseiluko kiderik zaharrena berezko dimisio emailletzat joko da.

Tutoretzan emana den Zaintza kontseiluko kide oro berezko dimisio emailletzat joko da.

Legeak finkatzen dituen baldintzen baitan, Zuzendaritza betearazleko kide orok eta lehengo edo egungo kontularitza komisarioek eta hauen senide eta aliatuek debekatua dute Zaintza kontseiluko kide gisa izendatuak izatea.

Zaintza kontseiluko kide gisa izendatua izateak ez du Sozietatearen eta bazkidearen artean izenpeturiko lan kontratuaren onura galarazten. Zaintza kontseiluko kidearen jardunaren eteteak ez du hunkitua denaren eta Sozietatearen artean hitzartu den lan kontratuan eraginik.

Haren funtzioak betetzen ari dela Zaintza kontseiluko kide baten dimisioa edo heriotza gertatuz gero, kooptazio bidez ordezkatu daiteke, jardunean gelditzen diren Zaintza kontseiluko kideen kopurua hamabi baino apalagoa den mementotik, honako artikuluko xedapenak jarraikiz.

Zaintza kontseiluak eginiko izendapenak, xedapen hauen arabera, ondoko ohiko biltzar nagusiaren berrespenaren menpe dira.

Zaintza kontseiluko kideen kopurua hiru baino apalagoa delarik, Zuzendaritza betearazleak ohiko biltzar nagusira berehala deitu behar du, Zaintza kontseiluko gutieneko kopurua osatzeko helburuarekin.

### **24.2 Egitekoen iraupena**

Zaintza kontseiluko kideen egitekoen iraupena sei urtekoa da.

Lehen Zaintza kontseilua osatuko dute:

- Aitor GARIN ;
- Jean-François BÉDERÈDE ;
- Antton ROUGET ;
- Jean-Louis SALABERRY ;
- Association Gatuzain Argitaletxea représentée par Joana HIRIGARAY
- Antton ETCHEVERRY ;
- Iurre BIDEgain ARROSAGARAY ;
- SA EUSKAL KOMUNIKABIDEEN HEDAPENARAKO ELKARTEA (EKHE) représentée Juan Pedro PLAZA LUJANBIO ;
- Association RADIOBASK représentée par Karine ORELLANA ;
- Association HEZIMEDIA représentée par Béatrice MOLLE.

izenpetzaileek, zeinak onartzen eta adierazten duten, bakoitzari dagokionez Sozietateko Zaintza kontseiluko kideen egitekoak betetzea debekatzen dieten legezko edo arauzko xedapenik ez dagoela.

Salbuespenez, haien agintaldia bururatuko da bukatu urtaldiko kontuei buruzko erabakiak hartzeko deituriko 2023/12/31ko ohiko biltzar nagusiaren ondotik.

Zaintza kontseiluko kideek hautagaitza errepika dezakete. Biltzar nagusiak uneoro kargugabetu ditzake, gai hori aipagaien zerrendan sartu ez bada ere

### **24.3 Egitekoen erreberritzea**

Zaintza kontseilua heren bidez erreberritu daiteke bi urte guziz.

Ateratze ordena Zaintza kontseiluko saioan egiten den zozketa bidez finkatzen da (zenbaki bakoitia litzatekeen kasuan, lehen atera direnen kopurua beheragoko kopurura ekartzen da)

Behin finkaturik, erreberritzea izendapen antzintasun ordenan egiten da.

Salbuespenez, estatutuen arabera izendaturiko kontseilarien agintaldiak hiru urteko epealdiaren ondotik bururatuko dira, kasu horretan erreberritze partzialik izan gabe.

## **25. Artikulua Zaintza kontseiluaren funtzionamendua**

### **25.1 Lehendakaria - Lehendakariordea**

Zaintza kontseiluak pertsona fisikoa den Lehendakaria hautatzen du, kontseiluko kideen artean hautatua dena eta zeinaren karguak zaintza kontseiluko kide den artean irauten duen.

Lehendakariak Zaintza kontseilua deitzeko eta eztabaidak gidatzeko betebeharra du.

Zaintza kontseiluak Lehendakariordea baldintza beretan eta iraupen bererako hauta dezake zeinak, Lehendakariak eragozpen bat duelarik edo honek aldi baterako haren eskudantzia besteren esku uzten duelarik, Lehendakariak betetzen dituen funtzio berak betetzen dituen eta ahalmen berak dituen.

## 25.2 Zaintza kontseiluko bilkurak

Zaintza kontseiluko Lehendakariak Zaintza kontseilua behar den guzietan biltzen du eta gutienez hiru hilabetean behin, Zuzendaritza betearazleak aldizkako txostena plazaratu eta hamabost egunen baitan.

Lehendakariak Zaintza kontseilua bildu behar du, Zuzendaritza betearazleko kide batek edo Zaintza kontseiluko kideen heren batek gutienez eskaera egiten badio. Eskaera hori ez badu hamabost egunen baitan betetzen, eskaera egin dutenek deialdia egin dezakete aipagaien zerrenda zehaztuz.

Zaintza kontseiluko kideei zuzenduriko deialdia medio guziak baliatuz egiten da.

Zaintza kontseiluko kide bat Zaintza kontseiluko beste batek ordezka dezake. Zaintza kontseiluko kide bakar batek ahalorde bakarra izan dezake.

Zaintza kontseiluko kideen erdiaren presentzia baitezpadakoa da erabakiak baliozkoak izan daitezen. Ordezkatuak diren Zaintza kontseiluko kideak ez dira quorumaren kalkulurako kontuan hartuak.

Zaintza kontseiluko Lehendakaria da bilkura saioen buru. Eragozpenik izanez gero, zaintza kontseiluko zaharrena izanen da bikura saioaren buru.

Erabakiak presente edo ordezkatuak diren kideen gehiengo bozka bidez hartzen dira. Bozka berdinketaren kasuan, Zaintza kontseiluko Lehendakariaren bozka gailentzen da.

Sozietateak Lan kodeko L 1111-2 artikulua zentzuan gutienez 50 langile enplegatzen dituelarik, batzorde sozial eta ekonomikoko ordezkarik diren bi bazkide, bat koadroen kategoriako eta bestea enplegatu eta langileen kategoriakoa, Zaintza kontseiluko bilkura saio guzietara bertaratuko dira iritziz emate gisa.

Sozietatearen baitan hiru bozka kolegio osatzen badira, Zaintza kontseiluko langileen ordezkaritza lau bazkidekoa izanen da. Bi bazkide langile eta enplegatuen kategoriakoak dira, hirugarrena gainbegiraleen kategoriakoa eta laugarrena ingeniari, zerbitzuburu eta koadro administratibo, merkataritza edo teknikari kategoriakoa.

Zaintza kontseiluko saioetan parte hartzen duten Kontseiluko kideek izenpetzen duten presentzia erregistroa atxikitzen da.

Saio bakoitzak barkatuak edo falta diren Zaintza kontseiluko kideen izenak agertzen dituen bilkura agiri bati bide ematen dio.

Bilkura agiria saioko lehendakariak eta presente diren Zaintza kontseiluko kide guziek izenpetzen dute.

Bilkura agiriak zenbakitua eta izenpetua den erregistro berezi batean atxikitzen dira.

Lehendakariak Zaintza kontseiluko bilkurak teletransmisio bidez egiten ahalko ditu, audio-konferentziak eta bideo-konferentziak barne, Zaintza kontseiluko kideen identifikatzea ahalbidetu behar duten baliabide horiek baliatzeko moldeak zehazten dituen barne araudirik baldin badago eta Zaintza kontseiluak plantan emana bada soilik.

Merkataritza kodeko L 225-82 artikuluko baldintzen baitan, Zaintza kontseiluak idatzizko kontsulta bidez ondoko puntuei buruzko erabakiak har ditzake:

- Zaintza kontseiluko kideen behin behineko izendatzea, bete gabe den eserleku bat den kasuan.
- Sozietateak emaniko berme, abal eta garantien baimena.
- Ezohiko biltzar nagusiaren aginpide delegazio bidez, legezko eta arauzko xedapenen arabera estatutuak aldatzea.
- Biltzar nagusirako deialdia egitea.
- Egoitza sozialaren lekualdaketa departamendu berean egitea.

Kontseiluko Lehendakariak, gutienez “egun kopurua” egun lehenago hartu beharreko erabakiei buruzko iritzia medio oroen bidez agertzera deitzen ditu Zaintza kontseiluko kideak. Kontsultari epe horretan erantzun ezean, erabakian parte hartu gabetzat joko dira.

Batzorde sozial eta ekonomikoko kideak Zaintza kontseiluko kideentzako baliatu modalitate beren arabera kontsultatu behar dira.

Erabakia, idatzizko kontsultan Zaintza kontseiluko kideen erdiak bederen parte hartu badu eta kontsultan parte hartu duten bazkideen gehiengoari jarraikiz baizik ezin da onartu.

Bozka berdinketaren kasuan, saioko Lehendakariaren bozka gailentzen da.

Derrigorrez bilkura fisiko bat izan behar da urteko kontuen eta kontu kontsolidatuen egiaztapenerako.

## **26. Artikulua** *Zaintza kontseiluaren botereak*

Zaintza kontseiluak Zuzendaritza betearazleko kideak eta Lehendakaria izendatzen ditu.

Zaintza kontseiluak etengabe eta egoki diren medio guzien bidez Zuzendaritza betearazleak egiten duen kudeaketa bermatzen du.

Zaintza horrek ez diezaieke inolaz ere Zaintza kontseiluak edo honen kideek zuzenean edo zeharka eginiko kudeaketa ekintzei bide eman, ez eta Zuzendaritza betearazlearen eskutik kudeatzea ezinezko egiten duten baldintzetan egin ere.

Zaintza kontseiluko Lehendakariak kontabilitateko dokumentuen berri hartu eta kopiak eskura ditzake uneoro eta Zuzendaritza betearazleko Lehendakaria (edo Zuzendari Orokor Bakarra) ahalmen horiek gauzatzeko aginduak ematera behartua da.

Bestalde, Zaintza kontseiluak alde aitzineko baimena ematen du hala izan behar den operazioen kasuan, legezko, arauzko edo estatutuetoako xedapenen arabera.

Zaintza kontseiluak haren baitan batzordeak sor ditzake, hauen osaketa eta egitekoa finkatuz eta aktibitatearen jarduna haren ardurapean atxikiz, eta aipatu egitekoek ezingo dute helburutzat izan Zaintza kontseiluari berari legez edo estatutu bidez dagozkion botereak beste batzorde baten esku uztea ez eta ondorioztat Zuzendaritza betearazlearen botereak murriztea edo mugatzea ere.

Zaintza kontseiluak helburu zehatz batekin edo batzuekin loturiko mandatu bereziak eman dakizkieke haren bazkideei.

Biltzarretara deitzea Zuzendaritza betearazlearen eskuduntzakoa izanik ere, Zaintza kontseiluak ahalmen hori ukan dezake Merkataritza kodeko L225-102, III artikulua ahalbidez dion bezala.

Ohiko biltzar nagusiak Zaintza kontseiluko kideei fresak estaltzeko ordain finko bat baizik ez diezaieke esleitu.

Halere, salbuespenezko ordainketa egitea erabaki daiteke Zaintza kontseiluak kide baten gomendio utziriko egiteko edo mandatu berezi baterako.

Zaintza kontseiluak enpresa gobernantzari buruzko txostena aurkezten dio urteko kontuak onartzeko ardura duen biltzar nagusiari, Merkataritza kodeko L 225-68 artikuluan aurreikusitako baldintzen baitan.

## **VI. TITULUA BILTZAR NAGUSIAK**

### **27. Artikulua** *Antolamendu komun eta orokorrak*

#### **27.1 Osaketa**

Biltzar nagusia bazkide guzietz osatua da, biltzarrean berean bazkideztara onartuak izan direnak barne, bozkatzeko onartuak izan bezain laster.

Bazkideen zerrenda Zuzendaritza betearazleak finkatzen du biltzar nagusiko bilkura aitzineko 16. egunean.

Bederen berrogeita hamar langile dituzten sozietateetan, batzorde sozial eta ekonomikoko bi kide, batzordeak izendaturikoak eta bata koadro teknikari eta agente gainbegiraleen kategoriakoa eta bestea langile eta enplegatuen kategoriakoa, biltzar nagusietan parte har dezakete.

#### **27.2 Deialdia eta bilkura gunea**

Zuzendaritza betearazleak edo ahalmena duen pertsona orok dei ditzake bazkideak.

Zuzendaritza betearazleak deitu ezean, biltzar nagusirako deialdia egin dezake:

- Zaintza kontseiluak;
- kontularitza komisarioak
- berehalako auzi prozedurak izendaturik justizia mandatarari batek, hunkitua den orok larrialdi egoeran galdeginik, edo biltzar nagusian balioa duten bozken %5a gutienez biltzen duten bazkide bat edo batzuek galdeginik.
- behin behineko administrari batek
- likidatzaileak

Biltzar nagusi ororen lehen deialdia bazkideei gutienez hamabost egun lehenago igorritako gutun edo posta elektronikoa bidez egiten da. Bigarren deialdirako epea hamar eguneko da gutienez.

Epeek ez dute gutunaren bidalketa eguna kontuan hartzen.

Deialdi elektronikoa bazkideen alde aitzineko onarpena eta haien posta elektronikoa jakinarazi izanaren menpeko da. Akordio hori ezeztatzea uneoro posible da, Zuzendaritza betearazleari eta Zaintza kontseiluko Lehendakariari igorritako eskuratze agiria duen gutun artamendatu bidez.

Artamendatze fresak Sozietateari ordaintzeko baldintzapean, bazkideek gutun artamendatu bidez deituak izatea eska dezakete.

Deialdi gutunak bazkideek distantziatik zein baldintzatan bozka dezaketen espreski aipatzen du.

Deialdian biltzarra non izanen den agertu behar da. Sozietatearen egoitzan edo departamendu berean kokatua den beste edozein egoitzan izan daiteke, edo bilkura horretarako egokia den beste edozein lekutan.

#### **27.3 Bideo konferentzia bidezko bilkurak**

Zuzendaritza betearazleak ohiko edo ezohiko biltzar nagusia eskusiboki bideo konferentzia bidez edo bazkideak identifikatzea ahalbidetzen duen beste telekomunikazioko baliabide bidez iraganen dela erabaki dezake.

Halere, urtean behin ohiko edo ezohiko biltzar nagusi bat fisikoki egitea derrigorrezkoa da, Sozietatearen aktibitatearen berri hartzeko, iragan urtaldiko kontuak onartzeko eta, beharrez, Zaintza kontseiluko kideak hautatu eta kontularitza komisarioa izendatzeko.

Gainera, ezohiko biltzar nagusiei dagokienez, kapital sozialaren %5a gutienez biltzen duten bazkide bat edo batzuk biltzarrean parte hartzeko modalitate eskusiboak baliatzearen aurka ager daitezke.

Kontra agertzeko eskubide hori deialdi formalitateen ondotik erabiltzen da.

Deialdiak biltzar nagusian parte hartzeko sareko baliabideak eskusiboki erabiltzearen aurka agertzeko eskubidea eta eskubide hori erabiltzeko baldintzak orotarazten ditu. Eskusiboki sareko baliabideak erabiltzearen aurka balitz bilkura zein lekutan iraganen den ere adierazten du agiriak.

Kontra agertzeko eskubidea deialdia jaso eta zazpi (7) egunen baitako epean erabiltzen ahal da.

Kontra agertzeko eskubidea erabiliz gero, Sozietateak gutun edo posta elektronikoki bidez biltzarra ez dela eskusiboki sareko baliabide bidez iraganen abisatu behar ditu bazkideak, berantenez biltzarra baino berrogeita zortzi (48) oren lehenago.

#### **27.4 Aipagaien zerrenda**

Aipagaien zerrenda deialdia egiten duenak erabakitzen du.

Halere, bozken %5a gutienez ordezkatzeko duten bazkide batek edo batzuek eta batzorde sozial eta ekonomikoak aipagaien zerrendan ebazpen proiektuak gehitzea eskatzeko ahalmena dute, gutienez hogeita bost (25) egun lehenago egoitza sozialera igorritako eskuratze agiria duen gutun artamendatu bidez.

Aipagaien zerrendan diren gaien inguruan baizik ezin da deliberatu.

Bestalde, biltzarrak Zaintza kontseiluko kide bat edo batzuk uneoro kargugabetu eta ordezkatu ditzake, gaia aipagaien zerrendan ez bada ere.

#### **27.5 Bulegoa**

Zaintza bulegoko lehendakaria izanen da biltzarraren buru, eta azken hau egon ezean Zaintza kontseiluko kiderik zaharrena. Bulegoa Lehendakariak eta ikuskatzaile funtzioa onartuko duten bi bazkidek osatzen dute. Bulegoak bazkidetzatiki kanpokoa izan daitekeen idazkaria izendatzen du.

Kontularitza komisario batek, justizia mandatarari batek edo likidatzaileek deialdia eginez gero, biltzarraren buru deialdia egin duena izanen da.

#### **27.6 Presentzia orria**

Kolegioka bazkideen abizen, izen eta helbidea, bakoitzak dituen parte sozial kopurua eta dituzten bozka kopurua biltzen dituen presentzia orria betetzen da.

Presente diren bazkide guziek izenpetzen dute, bai haien izenean zein ordezkutzen dutenaren izenean.

Biltzarreko bulegoak egiaztatzen du, egoitza sozialean utzia da eta galdeginen duen orori jakinaraziko zaio.

Biltzarra eskusiboki bideo konferentzia bidez edo telekomunikazio baliabideen bidez iragaten delarik, bazkideen izenpetzea ez da beharrezkoa izanen.

### **27.7 Bilkura agiriak**

Biltzar nagusietako deliberoak bulegoko kideek eginiko eta izenpeturiko bilkura agirien bidez kontrastatuak dira. Biltzarra eskusiboki bideo konferentzia bidez edo telekomunikazio baliabideen bidez iragatean izenpetzea bide elektroniketatik egin daiteke, izenpetze elektronikoko eguneratuek eskatzen duten bermeak gutienez errespetatzen dituen sistema baten bidez.

Egoitza sozialean dagoen erregistro berezi batean atxikitzen dira, Merkataritza kodeko R 225-106 artikuluko baldintzen arabera.

Beharrezkoa den quorumik ezean biltzar batek ezin badu araei jarraikiz deliberratu, aipatu biltzarreko bulegoak bilkura agirian agertuko du.

### **27.8 Erabakien ondorioak**

Erregulariki deituriko eta iraganiko biltzar nagusiak bazkideen osotasuna ordezkutzen du eta haren erabakiak lotesleak dira, baita presente ez zirenentzako, ezgaiantzako edo disidenteentzako ere.

### **27.9 Botereak**

Biltzar nagusian pertsonalki parte hartzea debekatua zaion bazkide batek ezin du beste bazkide batek, ezkonlagunak edo elkartasunezko hitzarmen zibileko kideak ordezkatu.

Mandataririk izendatu gabe Sozietateari helaraziriko botereak Zuzendaritza betearazleak aurkezturiko edo onaturiko proposamenen aldeko gisa kontuan hartuko dira, eta beste proposamen ororen onarpenaren aurkako gisa.

## **28. Artikula** *Bozka*

### **28.1 Bozka eskubidea**

Bazkide bakoitzak biltzar nagusian bozka bakarria emateko eskubidea du.

Estatutuen arabera parte sozialen kitatzearen ordainketan berantean den bazkide ororen bozka eskubidea 30 egunez etengo da Zuzendaritza betearazleak hala agindu ondoren, eta estatutuen araberrako ordainketak eguneratuak izatean soilik berreskuratzen da.

### **28.2 Aldez aitzinezko distantziako bozka**

Biltzar nagusiaren deialditik aitzina, bozka formulario bat eta gehigarriak eskura emanak dira edo, idatziz eskaera egiten duen bazkide orori, Sozietatearen bera gain harturik igorriak.

Sozietateak bilkura eguna baino sei (6) egun lehenago egoitza sozialean utzia izan den edo eskuratu duen galde oro onartu behar du. Distantziazko bozka formularioa Merkataritza kodeko R225-76 artikuluan eta ondokoetan finkatuak diren oharpen batzuk barne izan behar ditu.

Bazkideari biziki molde argian jakinarazi behar dio formularioan agerturiko abstentzio oro edo bozka agindu eskasia oro ez dela bozka gisa kontuan hartuko eta ondorioz gehiengoko kalkulatik kanpo izanen dela. Beharrez, formularioa ahalordearen formularioaren dokumentu berean ager daiteke.

Merkataritza kodeko R 225-76 artikuluan aurreikusiriko dokumentuak distantziazko bozkarako formularioari gehitzen zaizkio.

Biltzar baterako biltzarrari igorritako distantziazko bozka formularioak, jarraian eta aipagai zerrenda berarekin deituko diren biltzar guzietarako balio du.

Bazkideak haren eskuz izenpeturiko formularioa baliabide ororen bidez igor dezake, posta elektronikoa barne.

Sozietateak distantziazko bozka formularioak bilkura eguna baino hiru (3) lehenago eskuratu behar ditu.

Kasu horretan, distantziazko bozka formulario elektronikoa paperezko formularioaren bera da. Gehigarri berak lotu behar zaizkio.

Sozietateak distantziazko bozka elektronikoko formularioak biltzar egunaren bezpera arte eskura ditzake, berantenez Pariseko orduko 15:00etarako.

Ahalorde formularen eta distantziazko bozka formularioaren gibelera itzultzearen kasuan, ahalorde formula kontuan hartuko da, distantziazko bozka formularioan bozka eman izanaren baldintzarekin.

Distantziazko bozka formulario elektronikoak bazkideari helarazten zaizkio eta, ondotik, Sozietateari, eskusiboki horretarako den webgune baten bidez, Merkataritza kodeko R 225-75 artikulua aplikazioari jarraikiz.

### **28.3 Bozka modalitateak**

Zaintza kontseiluko kideen izendapena isilpeko bozka bidez egiten da.

Beste gai ororentzako eskua altxatuz bozkaten da, salbu biltzarreko bulegoak edo gehiengoak isilpeko bozka egitea erabakitzen badu.

### **28.4 bilkuran parte hartu eta bozkatzea baliabide elektroniko bidez**

Bilkura fisikoa den kasuan, biltzarrean baliabide elektroniko bidez parte hartzen eta bozkaten duten bazkideak presente balira bezala kontuan hartuko dira quorumaren eta gehiengoaren kalkulurako.

Biltzar nagusia eskusiboki sareko baliabideak erabiliz iraganen litzatekeen kasuan, bazkideek baliabide elektroniko bidez bozkaten dute, posta bidezko bozkaren kalterako izan gabe.

Quorumaren kalkulurako, bazkideen baliabide elektroniko bidezko partehartzea bermatua da, parte hartzaileen identifikatzea ahalbidetzen eta haien zinezko parte hartzea bermatzen duten baliabideei esker. Baliabide horiek parte hartzailearen ahotsa bederen helarazten dute eta deliberoen zabaltze etengabeko eta aldibereko ahalbidetzeko ezaugarri teknikoak betetzen dituzte.

Gehiengoaren kalkulurako, telekomunikazio elektronikoko bidezko saioretako bozka eskusiboki horretarako den sareko gune baten bidez egin behar da, Merkataritza kodeko R 225-61 artikulua aplikazioa jarraikiz. Kideek biltzarra baino lehen hornituriko kode baten bidez identifikatu ondotik baizik ezingo dute gune horretan sartu.

## **29. Artikulua** *Ohiko biltzar nagusia*

### **29.1 Quoruma eta gehiengoa**

Ohiko biltzar nagusi bat iragateko beharrezko quoruma da:

- **lehen** deialdian, bozka eskubidea duten bazkideen bosten bat. Distantziako bozka edo ahalordea eman duten bazkideak presentetzat jotzen dira;
- **bigarren** deialdian, ez da quorumik behar. Biltzarraren erabakiak baliozkoak dira, presente edo ordezkatuak diren bazkideen kopurua edozein izanik ere, baina aipagai zerrenda berarekin.

Erabakiak presente edo ordezkatuak diren bazkideek emaniko bozken gehiengo bidez hartzen dira. Abstentzioak, bozka xuriak edo baliogabeak ez dira emaniko bozka gisa kontuan hartuko eta, beraz, gehiengoaren kalkulutik kanpo dira.

### **29.2 Urteko ohiko biltzar nagusia**

#### **29.2.1 Deialdia**

Urteko ohiko biltzar nagusia urtaldia bururatu ondoko sei hilabeteen baitan iragaten da.

#### **29.2.2 Eginkizun eta eskumenak**

Urteko ohiko biltzar nagusiak kontuak onartzen eta soberakinak esleitzen ditu, legez eta honako estatutu bidez ezohiko biltzar nagusiari dagozkion eskumenekoak ez diren beste erabaki guztiak hartzen ditu.

Legeak ematen dizkion eskuduntzak erabiltzen ditu, bereziki:

- kontuak onartzen edo zuzentzen ditu,
- Sozietatearen orientazio nagusiak finkatzen ditu,
- bazkide berriak onartzen ditu,
- Zaintza kontseiluko kideak hautatzen ditu eta kargugabetu ditzake,
- Sozietatearen eta mandatari sozial baten edo batzuen artean izenpeturiko hitzarmenak onartzen ditu,
- beharrez gero kontularitza komisarioa izendatzen du,
- Zuzendaritza betearazleak proposaturiko soberakinen esleipena berresten du, honako estatutuen arabera,
- Zaintza kontseiluari baimenak ematen dizkio honen botereak eskasak gertatzen diren kasuetan,
- Bazkide batena den ontasunaren erostea baimentzen du. Erosketa hori izen ematearen bi urteen baitan gertatzen bada eta kapitalaren balioa 1/10en batekoa edo guttiagokoa bada, ondasun horren balioa estimatzeko ardura duen komisarioa izendatuko da, legeak finkatzen dituen baldintzen baitan.

#### **29.2.3 Ohiz kanpo bilduriko ohiko biltzar nagusia**

Ohiz kanpo bilduriko ohiko biltzar nagusiak ondoko urteko biltzar nagusira arte itxoin ezin duten gaiak aztertzen ditu.

### **30. Artikulua** *Ezohiko biltzar nagusia*

#### **30.1 Quorum eta gehiengoa**

Merkataritza kodeko L 225-96 artikuluko xedapenen aplikatzearen arabera, ezohiko biltzar nagusi bat iragateko beharrezko quoruma da:

- **lehen** deialdian, bozka eskubidea duten bazkideen laurdena. Gutun bidez bozkatu edo ahalordea eman duten bazkideak presentetzat jotzen dira.
- **bigarren** deialdian, orotara biltzarrean baliozkoak diren bozka eskubideen bosten bat ordezkatzan duten bazkideak presente edo ordezkatuak izan behar dira.

Quorum hori bete ezean, bigarren biltzarra bi hilabetez gehienez gibelatu daiteke deialdi eta quorumerako arau berak jarraikiz.

Erabakiak presente edo ordezkatuak diren bazkideen bozken bi herenen gehiengoak hartzen ditu. Abstentzioak, bozka xuriak edo baliogabeak ez dira emaniko bozka gisa kontuan hartuko eta, beraz, gehiengoaren kalkulutik kanpo dira.

#### **30.2 Eginkizun eta eskumenak**

Bazkideen ezohiko biltzar nagusiak soilik du Sozietatearen estatutuak aldatzeko eskumena.

Ezin ditu bazkideen ahobatezko adostasunik gabe haien engaiamenduak emendatu.

Ezohiko biltzar nagusiak besteak beste ahal du:

- Sozietateari kalte material edo morala eragin dion bazkidea kargugabetu,
- Sozietatea beste kooperatiba sozietate batean aldatu edo desegite aitzinatua edo beste kooperatiba sozietate batekin bateratzea erabaki,
- Bazkide kategoria berriak sortu,
- Bozka kolegio bakoitzaren bozka eskubideak aldatu, eta baita kolegioen osaketa eta kide kopurua ere.

## VII. TITULUA KONTULARITZA KOMISARIOA – KOOPERATIBA BERRIKUSTEA

### 31. Artikulua *Kontularitza komisarioa*

Urtaldi soziala bururatzean, Sozietateak Merkataritza kodeko L 225-218 artikulua xedeztat dituen hiru mugetatik bi gaindituz gero, ohiko biltzar nagusiak kontularitza titular bat izendatzen du.

Gisa horretan izendaturiko kontularitza komisarioa pertsona fisikoa edo pertsona bakarreko sozietatea delarik, kontularitza komisario bat edo gehiago baldintza beretan izendatuko dira, titularraren ezezkoaren, ezintasunaren, dimisioaren edo heriotzaren aitzinean ordezkaritza izateko.

Bazkideek kontularitza komisario bat edo batzuk izendatzea erabaki dezakete, sozietateak aipatu irizpideak betetzen ez baditu ere.

Hauen izendapena Merkataritza kodeko L 225-228 artikuluko baldintzen baitan gertatzen da.

Komisarioen eginkizunen iraupena sei urtaldikoa da. Berritu daitezke.

Izendatuak izan direlarik, kontularitza komisarioak Merkataritza kodeko L225-218tik L225-235era doazen artikuluek ematen dizkieten eginkizun eta botereak dituzte.

Beharrez, urteko edo erdibideko kontuak aztertzen edo finkatzen dituen Zuzendaritza betearazleko bilkura guzietara deituak dira eta baita bazkideen biltzar guzietara ere.

Deialdia eskuratze agiria duen gutun artamendatu bidez egiten da.

### 32. Artikulua *Kooperatiba berrikusketa*

Sozietateak kooperazio estatutuari dagokion 1947ko irailaren 10eko 47-1775 legeko hamabigarren 19. artikuluan eta 2015eko ekainaren 22ko 2015-706 dekretuan aurreikusten den 5 urteroko kooperatiba berrikusketa eginaraziko du.

Bestalde, kooperatiba berrikusketa berehala egin beharko da baldin eta:

- hiru urtaldik jarraian diru galtzeak agertzen badituzte;
- urtaldi bateko galtzeak kapitalak lorturiko hein gorenaren erdira bederen iristen badira;
- bazkideen hamarren batek eskatzen badu;
- Zaintza kontseiluko kideen heren batek eskatzen badu;
- ekonomia sozial eta solidarioaren ministroak edo delako kooperatibarekiko eskuduna den ministro orok eskatzen badu.

Bazkideek kooperatiba berrikusleak eginiko txostena eskuragarri izanen dute ohiko biltzar nagusiaren data baino hamabost egun lehenago. Berrikuslea bazkideen baldintza beretan biltzar nagusira deituko da. Txostena ohiko biltzar nagusian edo ohiz kanpo bilduriko ohiko biltzar nagusian irakurriko du, presente balitz, berrikusleak, edo bilkura buruak. Biltzar ,agusiak ebazpen batean agerraraziko du.

## VIII. TITULUA KONTU SOZIALAK – SOBERAKINAK – ERRESERBAK

### 33. Artikulua *Urtaldi soziala*

Urtaldi soziala urtarrilaren 1ean hasten da eta abenduaren 31n bukatzen.

### 34. Artikulua *Dokumentu sozialak*

Behar izanez gero, Sozietatearen inbentarioa, bilana, emaitzen kontua biltzarrean aurkezten dira, Zuzendaritza betearazlearen, Zaintza kontseiluaren eta kontularitza komisarioaren txostenekin batera.

### 35. Artikulua *Soberakinak*

Soberakinak ezohiko emaitzen urtaldiko eta aitzineko urtaldietako emaitza emendatuek osatzen dituzte, fresak, kargak, zor kitatzeak, hornidurak eta urtaldi berari dagozkion zergak kontuan hartu ondoren, eta baita ezohiko edo aitzineko urtaldietako galtzeak eta aitzineko galtzeen gibelatzeak ere.

Esleipenen eta banaketaren erabakia Zuzendaritza betearazleak hartzen du eta ondoko bazkideen biltzar nagusiak berresten.

Zuzendaritza betearazleak eta bazkideen biltzarrak ondoko araua bete behar dute:

- %15a legezko erreserbara bideratzen da, kapitalak lorturiko zenbateko goreneko emaitza lortu arte zuzkidura jasoko duena; zenbateko hori lortuta, zuzkidura hori estatutuetako erreserbara bideratzen da.
- Legezko erreserbara bideratzen den zuzkidura egin ondoren, eskuragarri diren zenbatekoen < %50 gutienez > estatutuetako erreserba batera bideratzen dira.
- Parte sozialei interes bat banatu dakieke, zeinaren zenbatekoa Zuzendaritza betearazleak proposatu ondoren biltzar nagusiak finkatu beharko duen eta ezingo dena legezko eta estatutuetako zuzkidurak esleitu ondoren gelditzen den zenbatekoa baino handiagoa izan. Ezin da, biltzar nagusiaren data aitzineko hiru urte zibilen baitan, ekonomiaz arduratzen den ministerioak publikaturiko sozietate pribatuen betebeharren batz besteko etekin tasaren, hau bi puntuz emendaturik, gaineratik egon. Haatik, Sozietateari elkargo publikoek, hauen bateratzeak edo elkarteak esleituriko diru-laguntzak, sustenguak eta beste finantzatzeko moldeak ez dira parte sozialei esleitzen zaizkien interesen kalkuluan sartzen ez eta, gertatzen bada, 1947ko irailaren 10eko 11 eta 11 bis artikuluen aplikatzearekin liriatekeen abantaila edo interesen kalkuluan ere.

Ordainsariari bide ematen dioten parte sozialak, urtaldia bururatzen den egunean zirenak eta urteko ohiko biltzar nagusian izaten jarraitzen dutenak dira.

Parte sozialen ordainketa, urtaldia bururatu eta bederatzi hilabetetan gertatu behar da berantetik.

### 36. Artikulua *Erreserben partekatze ezintasuna*

Hauen jatorria edo izendapena edozein izanik ere, erreserbak ezin dira sekulan kapitalean sartu eta ezin dute parte berriak sortzeko edo parteen balore nominala emendatzeko parada eman, ezin dira harpideturiko parteak kitatzeko baliatu, ez eta, zuzenean edo zeharka, kooperatibako bizian edo bururatzean bazkideei edo langileei edo hauen oinordeko eta eskubidedunei eman ere.

1947ko irailaren 10eko 15. artikuluko, 26. artikuluko 3. eta 4. ataletako eta 29. artikuluko 2. ataleko xedapenak ez zaizkio Ikksari aplikatzen ahal.

## **IX. TITULUA    DESEGITEA - LIKIDAZIOA - AURKARATZEA**

### **37. Artikulua**    *Kapitalaren erdia galtzea*

Kontabilitateko dokumentuetan egiaztaturiko galtzeen ondorioz aktibo garbia kapital sozialaren erdia baino apalagoa bada, Zuzendaritza betearazleak biltzar nagusira deitu behar du, Sozietatearen desegitea edo honen aktibitatearekin segitzea erabakitzeko. Biltzarraren erabakia publikitate baten baitan sartuko da.

### **38. artikulua**    *Sozietatearen epemuga - Desegitea*

Sozietatearen epemugara iristean, luzapena erabakitzen ez bada, edo desegite aitzinatu baten kasuan, biltzar nagusiak likidazioa legearen arabera gauzatzen du eta likidatzaile bat edo batzuk izendatzen ditu, botere zabalenak dituztenak.

Pasiboa azkendu eta likidazio fresak ordaindu ondoren eta, gertatuko balitz, partekatze gibelatuen ondoren, bazkideek ez dute haien parte sozialen balore nominalaren ordainketarako eskubidea baizik, ordaindu ez den hauen partea kendu ondoren.

Likidazioaren gehigarria biltzar nagusiaren erabaki bidez esleituko da, edo beste kooperatiba batzuei edo kooperatiben batasunei edo, 2014ko uztailaren 31ko 2014-856 legearen 1. artikuluari jarraikiz, ekonomia sozial eta solidarioan oinarrituriko enpresa bati.

### **39. Artikulua**    *Skop eta Ikksen Konfederazio Nagusiko kide izatea*

Sozietatea, 1901eko uztailaren 1eko legedipekoa den eta egoitza soziala 30 rue des Epinettes 75107 Parisen duen Ikksen Konfederazio Nagusiko kide da. Konfederazioa, Kooperatiba Mugimendua ordezkatzearaz eta hauen interesak defendatzeaz arduratzen da, lurralde mailan eskuduna den Skopen Lurraldeko Batasunean eta Profesionalen federazioan, zeinaren meneko den Sozietatea.

### **40. Artikulua**    *Skop eta Ikksen Konfederazio Nagusiko kide izatea*

Sozietateak irauten duen artean edo honen likidazioan, bazkideen edo bazkide ohien eta Sozietatearen artean, edo bazkide edo bazkide ohien artean, edo Sozietatearen eta interes kolektiboko edo ekoizpeneko beste kooperatiba sozietate baten artean gai sozialei buruz, bereziki honako estatutuen aplikatzeari eta honen ondorioei buruz, sor daitekeen eztabaida oro, eta Sozietatearen eta bazkideen edo bazkide ohien edo beste kooperatiba baten artean trataturiko afera oro Skop KNaren (CG Scop) arbitrajearen menpe izanen da.

Arbitraje epaiak betearazleak dira, salbu eskuduna den jurisdikzioan helegitea eginez gero.

Honako klausula arbitraje konpromiso balioa du.

Arbitraje araudia parteei ematen zaie prozedura irekitzen delarik.

Arbitraje epaiak betearazleak dira eta Pariseko dei Gortean helegitea pausa daiteke.

Urruña 2023ko uztailaren 8an egina  
legeak eskatzen duen beste aletan

Bazkideen sinadura

**BLAISE Francis**

**DAGUERRE Oihana**

**FAUVEAU Guillaume**

**GONI Haize**

**GRACIET Patrick**

**IBARRA Andrea**

**LEFORT Jean-François**

**ROUX Willy**

**SAUZET Aurore**

**TABERNA Goizeder**

**THOMMEN Felix**

**BEDEREDE Jean-François**

**BIDEGAIN ARROSAGARAY Iurre**

**ETCHEVERRY Antton**

**GARIN Aitor**

**ROUGET Antton**

**SALABERRY Jean-Louis**

**SA Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkarte  
- EKHE – représentée par Juan Pedro PLAZA  
LUJANBIO**

**Association Radiobask représentée par karine  
ORELLANA**

**Association Hezimedia représentée par Béatrice  
MOLLE**

**Association Gatuzain Argitaletxea représentée par Joana  
HIRIGARAY**